

Bessonovaren brontze sufritua

Munduaren aurrean zaren gisan—edo, zergatik ez: ez zaren gisan—agertzeko modua da estatuentzat Olinpiada, makilaje kanpaina, bizeps erakustaldia. Antolatzaileentzat, gainera, inaugurazio eta itxiera ekitaldi hanpatu eta militar kutsukoen bidez mundua epatatzeko era ere izan liteke, kirol diziplina ez baitago sarritan, zoritxarrez, militarren diziplinatik urrun. Ikusi ditugu paperetan domina gehien irabazi dituzten herrialdeen zerrenda harroak (Txina, AEBak eta Errusia podiumean), bai eta zerrenda alternatiboagoak ere, herrialdeen Barne Produktu Gordinaren proportzioaren arabera irabazitako dominenak, kasu (Zimbabwe, Mongolia eta Jamaika lirateke hiru lehenak), edo eta biztanleriaren arabekoak (Bahamak, Jamaika, Islandia). Herrialdeen arteko gatazkak armen bidez baino, kiroltasunez jokaturako norgehiagokan gainditzeko aldarrikapena batere orijinala ez den arren, badu egiatik zerbait; Georgiako eta Errusiako judo borrokalari bien arteko besarkada ikusi besterik ez zegoen. Errealizazio mailan beti izaten da berritasunik: urpeko kamera angeluak, grafismo berriak... Badira, ordea, sekula aldatzen ez diren gauzak.

Kirolari batek domina eskuratzen duenean edo haren parte hartzea azpimarratu nahi denean, paraleloki, haren estatukoak diren zaleak enfokatzen dira, dago-kion herrialdeko bandera astintzen ari direla, masail-kopetatan euren herrialdeko *koloreak* margoturik nola dituzten erakutsiz. Kirolaria eta hark ordezkatzeko duen zalegoa, elkarren eskutik beti. Badu bere logika, baina ez ote litzateke batzuetan interesgarriagoa aurkariaren herrialdeetako zaleak tartekatzea lantzean behin? Hartara, espiritua olinpikoaren ifrentzua ere ikusiko genuke: indiferentzia, sabotajerako grina, ezinikusia.

Gimnasia erritmikoak erabat eduki nau pantailara kateatua. Ezezagunak zitzaizkidan gimnasta guztiak, baina aitortu beharra daukat



ALBERTO ELSOEGI


aurki jarri nintzela Anna Bessonova ukrainiarren alde, haren dotorezia eta harmonia maila zein xuhurki puntuatzen zuten ikusita. Gimnasta bati, ariketa biribil bat egiten duenean, bertsolari bati bederlatzi puntuko biribil bat abesten duenean gertatzen zaion gauza berbera gertatuko zaiolakoan nago: berak badaki zer egin duen. Horixe begitandu zitzaidan Bessonovaren ariketa paregabearen ondotik hura irribarrez ikusi nuenean: “oraingoa bai, honek bazakik”. Epaimahaiak, ordea, oso baxutik baloratu zuen ariketa, eta negarrari eutsi ezinik geratu zen Bessonova. Hitchcocken filmetan adina suspense izan zen finalean: Ukrainako ordezkariak epaimahaiburuari billete sorta nola luzatzen zion ikustea izan zen estonagarriena. Esatarriak argitu zuenez, erreklamazio gehiegi egon ez dadin, derrigorrezkoa da, nonbait, eskaeraren seriotasuna bermatze aldera, erreklamatu nahi duenak lehenbizi dirua ordaintzea... Finala etenda egon zen zenbait minutuz eta epaimahaikideek (haien artean mafioso itxurako italiarra, D&G betaurreko eta guzti: zin dagit ez naizela deus asmatzen ari) berrikusi egin zuten Bessonovaren ariketa. Ez zioten, haatik, puntuazioa askorik igo: 0,05 eskas.

Sakrifizioa, gutxiespena, dirua... Jada ez ginen gimnasia ikusten ari, ez horixe. Zerbait gehiago zen han jokoan. Ikaragarri gizatiarra zen kamerek erakutsi zutena: gimnastak lehiakideen azken ariketari begira, domina lortuko ote zuten edo ez kalkulatzeko, lagunek noiz akats bat egingo irrikatzen zutela, ezin disimulaturik.

Hantxe zen inbidia, hantxe zen norbere lanaren balorazio eskasaren sentimendua, hantxe ginen zu eta ni, hain miserable eta zikoitz, hain esperantzaz beteta, hain zortearen menpeko, lagun hurkoaren irristadaren zain.

Ez zitzaion Akutagawa idazle japoniarrari arrazoirik falta: inoren zoritxarrak errukia sortzen digun arren, zoritxar hori emendatzen denean, erruki hori desagertzeaz gain, lausoki bada ere, zoritxar txiki berriren bat opatzen diogu osteria ere lagunari. Horrelakoak gara. ■

Ikaragarri gizatiarra zen kamerek erakutsi zutena: gimnastak lehiakideen azken ariketari begira, domina lortuko ote zuten edo ez kalkulatzeko, lagunek noiz akats bat egingo irrikatzen zutela, ezin disimulaturik



irudia: Antton Olariaga